Urretxuko udala

## UDALAREN OSOKO BILKURA

## 2022ko UZTAILAREN 21ean EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA

**Elkartutakoak**

**Alkatea:**
Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

**Zinegotziak:**
Itziar Agirre Berriotxoa, andrea (E.A.J/ P.N.V))
Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Victor M. Pérez Eguren, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Ion Pol Agirre Berriotxoa, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Nekane Oruesagasti Aramendi, andrea (E H Bildu)
Igone Nestar Del Río, andrea (EH Bildu)
Mikel Elgarresta Mintegi, jauna (E H Bildu.)
Aitor Diaz de Espada Gorrochategui, jauna (EH Bildu)
Natividad Nieves Medina, andrea (P.S.E.-E.E)
Jokin Garcia Benítez, jauna ((P.S.E.-E.E)

**Idazkaria**
María Jose Begiristain Zabalo andrea

**Kontu-hartzailea**
Jon Iturrioz Nazabal jauna

Urretxun bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita batean.

Arratsaldeko zazpirak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarra egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian, goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

En Urretxu a veintiuno de julio de dos mil veintidós.

Siendo las diecisiete horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Urretxuko udala

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaidatzeari ekin diote

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día

| | |
|---|---|
| 1.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena:<br>- KALD-8/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak. | 1 Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto:<br>- Expediente modificación créditos nº KALD-8/2022 transferencia de créditos. |
| 2.- Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra: 2021-12-31ko eguneraketaren onarpena. | 2.- Inventario General de Bienes y Derechos: aprobación actualización a 31-12-2021. |
| 3.- 2021eko Kontu orokorra: onarpena. | 3.- Cuenta General 2021: aprobación. |
| 4.- Herriko merkataritzako kontsumoa sustatzeko eta familiei laguntzeko diru laguntzak: oinarriak eta 2022ko deialdia. | 4.- Subvenciones dirigidas a incentivar el consumo en el comercio local y ayudas a familias: aprobación bases reguladoras y convocatoria 2022. |
| 5.- Ogasun eta Finantza Foru Departamentuaren eta Udalaren arteko informazio lagapenerako lankidetza hitzarmena: onarpena. | 5.- Convenio de colaboración en materia de cesión de información entre el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y el Ayuntamiento: aprobación. |
| 6.- “Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U. 11) del PGOU de Urretxu” Xehetasun Azterlana: behin betiko onarpena. | 6.- Estudio Detalle “Subámbito 11.1 Gainzuri—convento (A.U. 11) del PGOU de Urretxu”: aprobación definitiva. |
| 7.- Kale garbiketa kontratua: luzapenari uko egitea onartzea. | 7.- Contrato limpieza viaria: aceptación renuncia a la prórroga. |

**<u>1.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena:</u>**

**<u>- KALD-8/2022 zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak.</u>**

Kontu hartzaile jaunak azaldu du kreditu-aldaketa hori maiatzaren 26ko Alkatetzaren Ebazpen bidez onartu zela, eta diru-partida batzuetatik besteetara kantitateak transferitzean datzala, hau da, partida batzuk txikiagotzea beste batzuk handitzeko edo

**<u>1 Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto:</u>**

**<u>- Expediente modificación créditos nº KALD-8/2022 transferencia de créditos.</u>**

El sr. interventor explica que esta modificación de créditos fue aprobada por Resolución de Alcaldía de 12 de julio pasado, y que consiste en transferir cantidades de unas partidas a otras, es decir minorar algunas partidas para aumentar o crear

berriak sortzeko kasu honetan bezala. Guztira, 30.000 € dira, eta honako partida hauei dagozkie:

otras, como es este caso. En total son 30.000 € que se corresponden con las partidas siguientes:

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 4000.227.231.20.04 2022 | HITZ.: EGUNEKO ZENTROA KUDEAK. | 665.000,00 | 30.000,00 | 635.000,00 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | **665.000,00** | **30.000,00** | **635.000,00** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 2000.221.133.00.11 2022 | SEINALEZTAPEN MATERIALA | 12.000,00 | 10.000,00 | 22.000,00 |
| 1 9000.210.133.00.01 2022 | MANTENUA SEINALEAK ETA ERREPIDEAK | 10.000,00 | 10.000,00 | 20.000,00 |
| 1 9000.609.153.30.01 2022 | INBERTSIOAK: HIRI-ALTZARIAK | 20.000,00 | 5.000,00 | 25.000,00 |
| 1 9000.609.153.30.02 2022 | BIDEGORRIAN EKIPAMENDUAK | 15.000,00 | 5.000,00 | 20.000,00 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | **57.000,00** | **30.000,00** | **87.000,00** |

Jarraian kontu-hartzaileak aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari buruzko txostenaren berri eman du.

Aurrekontu-egonkortasuna:
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio ez-finantzarioak 1.590.183,56 €dira;

Seguidamente el sr. interventor da cuenta del informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto, y expone:

Estabilidad presupuestaria:
Las obligaciones no financieras financiadas con remanente de tesorería ascienden a

Urretxuko udala

diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako defizita 1.590.183,56 €; finantzaketa-ahalmena/-premia 0,00 €.

2022ko ekitaldirako ez da egonkortasun-helbururik ezarri, baina erreferentziazko defizita 189.839 eurokoa da Urretxurako.
Bi kopuruen alderaketatik ikusten denez, Udalaren finantzaketa-ahalmenak/beharrak ez du gainditzen erreferentziazko defizit hori.

Finantza-iraunkortasuna.
2022ko abenduaren 31n Urretxuko Udalaren zor bizia % 0,00 izatea aurreikusten da. 2022ko ekitaldirako eten egin da zorpetze-helburua.

Gastu-araua.
2022an, orain arte, gastu konputagarriaren aldakuntza % 29,18koa izan da. 2022ko ekitaldirako, gastu-araua eten da.

Udalak ez du gainditu 2022ko ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita, eta, beraz, ez du egin behar 9/2020 Foru Araubide Dekretuan aurreikusitako plan ekonomiko-finantzarioa.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2.- Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra: 2021-12-31ko eguneraketaren onarpena.**

1.590.183,56 €, el déficit financiado con remanente de tesorería es de 1.590.183,56 €; la capacidad /necesidad de financiación es 0,00 €.

Para el ejercicio 2022 no se ha establecido un objetivo de estabilidad, aunque sí un déficit de referencia, para Urretxu es de 189.839 €.
De la comparativa de ambas cantidades se observa que la capacidad/necesidad de financiación del Ayuntamiento no supera dicho déficit de referencia.

Sostenibilidad financiera.
A 31 de diciembre de 2022 se prevé que la deuda viva del Ayuntamiento de Urretxu sea 0,00%.
Para el ejercicio 2022 se ha suspendido el objetivo de endeudamiento.

Regla gasto.
En el año 2022, hasta ahora, la evolución del gasto computable ha sido un 29,18%. Para el ejercicio 2022 se ha suspendido la regla de gasto.

Por tanto, no se ha superado el déficit de referencia establecido para el ejercicio 2022. Por tanto, no está obligado a aprobar el plan económico financiero previsto en el artículo 1.4 del DFN 9/2020.

La corporación se da por enterada.

**2.- Inventario general de Bienes y Derechos: aprobación actualización a 31-12-2021.**

Se da cuenta de la actualización del Inventario General de Bienes y Derechos pertenecientes a la

Urretxuko udala

Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorraren eguneraketaren berri eman da, 2021eko abenduaren 31ko datarekin egina, eta laburpen orokor hau ematen duelarik

Corporación confeccionado con referencia al 31 de diciembre de 2021, y que ofrece el siguiente resumen general:

| Epígrafes | Número de bienes o derechos | Valor Técnico | Valor contable |
|---|---|---|---|
| EDIFICIOS EN CESION DE USO. . . | 82 | 0,00 | 0,00 |
| INMUEBLES. . . | 601 | 42.639.810,23 | 25.486.941,76 |
| DERECHOS REALES. . . | 86 | 665.911,93 | 293.447,11 |
| BIENES DE CARACTER HISTORICO. . . | 24 | 257.761,47 | 0,00 |
| VALORES MOBILIARIOS. . . | 4 | 99.967,36 | 99.967,36 |
| VEHICULOS. . . | 9 | 45.737,92 | 176.792,58 |
| SEMOVIENTES. . . | | 0,00 | 0,00 |
| BIENES. MUEBLES . | 2463 | 1.048.135,05 | 767.079,31 |
| BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES. . . | 6 | 2.261.541,96 | 1.724.548,00 |

TOTAL VALOR TÉCNICO o DE MERCADO: 47.018.865,92
TOTAL VALOR CONTABLE: 28.548.776,12

Alkate jaunak dio alta esanguratsuenak honako erosketak direla: Paionistas eliza, Mugitegiko D bidean dagoen 9-11 pabiloia, eta “triangulo Berriotxoa” izenarekin ezagutzen den lursaila.
Bajei dagokienez RVPO Gainzabal lursailari baja eman zaio, honen titulartasuna Eusko Jaurlaritzari laga zitzaiolako gazteentzako alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeko.

Toki Araubideari buruzko Testu Bategineko 86 artikuluan eta Toki Erakundeetako Ondasun Araudiaren 17 eta hurrengoetan ezarritakoa

El sr. alcalde expone que las altas más significativas son la compra de la iglesia Pasionistas, el pabellón 9-11 sito en el vial D de Mugitegi, y el conocido como triangulo Berriotxoa.
En cuanto a las bajas expone que se ha dado de baja la parcela RVPO Gainzabal cuya titularidad fue cedida a Gobierno Vasco para le edificación de viviendas sociales en alquiler para jóvenes.

Considerando lo dispuesto en el art. 86 TRRL y 17 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, y el informe emitido por la

Urretxuko udala

kontua izanik, eta espedientean jasota dagoen idazkariaren txostena.

Antolakuntza Batzorde Informatiboak egindako aldeko diktamena kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, aho batez erabaki da:

**Bakarra.-** Udalbatzaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrari dagokionez, 2021eko abenduaren 31n egindako zuzenketa onartzea, prestatua izan den hitzetan.

**3.- 2121eko Kontu Orokorra: onarpena**.

Kontuan hartuta Toki-erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 63. artikulua, toki-erakundeen urteko kontuen egoera-orriak egiteko eta onartzeko prozedura ezartzen duena, kontu-hartzaile jaunak 2021eko aurrekontu-ekitaldiko kontu orokorraren berri eman du, eta adierazi du balantzeak 33.716.860,71euroko zenbatekoa erakusten duela aktiboan eta pasiboan; ondarearen emaitza ekonomikoa 208.891,22 euroko defizita izan da; eta diru-fluxuen azken zenbatekoa 5.071.416,93 eurokoa da.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko ekainaren 21ean argitaratutako iragarki baten bidez jendaurrean jarri ondoren, ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

19:15ak direnean Perez zinegotzi jauna bilkurara gehitu da.

Batzorde Informatiboak emandako aldeko irizpena kontuan hartuta, gaia bozkatu da, eta aho batez erabaki da:

Secretario que consta en el expediente.

Considerando el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización, y sometido a votación, por unanimidad se acuerda**:**

**Único.-** Aprobar la rectificación del Inventario General de Bienes y Derechos de la Corporación a 31 de diciembre de 2021, en los términos en que ha sido confeccionado

**3.- Cuenta General 2021: aprobación**.

Considerando lo dispuesto en el art. 63 de la Norma Foral 4/1991, de 26 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales, por el que se establece el procedimiento de elaboración y aprobación de los estados de cuentas anuales de las entidades locales, por el sr. Interventor, se da cuenta de la Cuenta General del ejercicio presupuestario 2021, indicando que el balance arroja una cifra en activo y en pasivo de 33.716.860,71 €; el resultado económico patrimonial ha arrojado un déficit de 208.891,22 € y el importe final de los flujos de efectivo asciende a 5.071.416,93 €.

Resultando que, tras haber efectuado la oportuna exposición al público mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 21 de junio de 2022, no se ha producido reclamación alguna.

Siendo las 19:15 se incorpora a la sesión el concejal sr. Pérez.

Habida cuenta del dictamen favorable emitido al efecto por la Comisión Informativa se somete el asunto a votación, y por unanimidad se acuerda:

**Bakarra.-** 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea.

**4.- Herriko merkataritzako kontsumoa sustatzeko eta familiei laguntzeko diru laguntzak: oinarria eta 2022ko deialdia.**

Fidalgo andreak azaldu du diru-laguntza lerro hau proposatzen den hirugarren urtea dela, irailerako, ikasturtearen hasierarako, martxan egon daitezen. Azaldu du ere bi helburu dutela: herriko merkataritzan kontsumoa sustatzea, erosketak herriko dendetan egin behar direlako, eta baldintza batzuk betetzen dituzten familiei laguntzea. Bestalde esan du bi tarte aurreikusten direla: 1 tartean, lanbide arteko gutxieneko soldataren %175 artekoa izango da, eta ikasleko 100 euroko diru laguntza dagokio; eta 2 tartean lanbide arteko gutxieneko soldataren %200 artekoa izango da ikasleko 75 euroko diru laguntza izango dutelarik.

Honezaz gain lagungarriak diren gastuak azaldu ditu: mahai gaineko materiala, estutxeak, konpasak, eskolako motxilak, batak, betaurreko edo lente zuzentzaileak, eta soinketa egiteko arropa eta oinetakoak. Erosketa hauek 2022ko irailaren 1etik urriaren 31 bitartean egin beharko dira,

**Unico.-** Aprobar la Cuenta General del el Presupuesto correspondiente al ejercicio 2021.

**4.- Subvenciones dirigidas a incentiva el consumo en el comercio local y ayuda a familias: aprobación bases reguladoras y convocatoria 2022.**

La sra. Fidalgo expone que este es el tercer año en el que se propone esta línea de subvención, con el objetivo de que estén operativas para el mes de septiembre, inicio del curso escolar, indicando que tienen un doble objetivo: fomentar el consumo local ya que las compras subvencionadas se tienen que realizar en comercios del municipio, y ayudar a las familias que cumplan una serie de requisitos. Sigue diciendo que se contemplan dos tramos: el tramo 1, ingresos de la unidad familiar iguales o inferiores al 175% del salario mínimo interprofesional, tramo en el que se otorga una subvención de 100 € por estudiante; y el tramo 2, ingresos de la unidad familiar iguales o inferiores al 200% del salario mínimo interprofesional, tramo en el que se otorga una subvención de 75 € por estudiante.

Añade que los gastos subvencionables son material de escritorio, cartapacios, compases, mochilas escolares, batas, gafas o lentes correctoras, y ropa y calzado para la práctica de la educación física, y que los mismos se tienen que hacer entre el 1 de septiembre y el 31 de octubre de 2022.

Urretxuko udala

Azkenik, eskaerak 2022ko irailaren 1etik azaroaren 5 artean aurkeztu beharko direla argitu du.

Herritarren Batzordearen aldeko irizpena kontuan izanik, gaia botoetara eramanda, honako hau erabaki da aho batez:

**Bakarra.-** Tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko eta familiei eskola-materiala erosten laguntzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri espezifikoak eta 2022ko ekitaldirako deialdia onartzea.

Por último, señala que las solicitudes deberán presentarse entre el 1 de septiembre y el 5 de noviembre de 2022.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Ciudadanía, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Único.-** Aprobar las bases específicas reguladoras se las subvenciones dirigidas a incentivar el consumo en el comercio local y ayudar a las familias en la compra de material escolar, y su convocatoria correspondiente al ejercicio 2022.

**<u>5.- Ogasun eta Finantza Foru Departamentuaren eta udalaren arteko informazioa lagapenerako lankidetza hitzarmena: onarpena.</u>**

Alkateak azaldu du onartzea proposatzen den hitzarmenak Ogasun eta Finantza Sailak datuak lagatzea arautzen duela, zehazki kontu korronteak egiaztatzea eta notario-eskriturak eskuratzea Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga likidatzeko.

Kontuan harturik Antolakuntza Batzordeak emandako aldeko diktamena, aho btez, honakoa erabaki da:

**Lehena.-** Ogasun eta Finantza Foru Departamentuaren eta udalaren arteko informazioa lagapenerako lankidetza hitzarmena onartzea.

**<u>5.- Convenio de colaboración en materia de cesión de información entre el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y el Ayuntamiento: aprobación.</u>**

El sr. alcalde expone que el convenio cuya aprobación se propone regula cesión de datos por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas, en concreto la verificación de cuentas corrientes, y el acceso a escrituras notariales al objeto de liquidar el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terreno de Naturaleza Urbana.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Organización, por unanimidad se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el  Convenio de colaboración en materia de cesión de información entre el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y el Ayuntamiento.

Urretxuko udala

**Bigarrena.-** Alkateari ahalmena ematea horretarako beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

**Segundo.-** Facultar al sr. alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

6.- **<u>"Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U.11) del PGOU de Urretxu" Xehetasun Azterlana: behin betiko onarpena.</u>**

Lurraldearen Batzordeko lehendakari den Zubillaga jaunak azaldu du Xehetasun Azterlan honen helburua sestrak eta lerrokadurak zehaztea eta aurreikusitako eraikinen bolumenak berrantolatzea dela.

Xehetasun-Azterlan hori Fernando Garate eta Unai Aldama arkitektoek idatzi dute, eta 2022ko ekainaren 10eko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onespena, jendaurrean azaldu zen 20 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 115 zk., 2022ko ekainaren 17koa, 2022-06-14an Berrian eta 2022-06-17an Diario Vasco egunkarietan iragarkiak jarrita.

Oruesagastik andreak azaldu duenez, bere talde politikoa, EH Bildu, eremu honi buruz izandako aurreko bozketekin koherente izateagatik, abstenitu egingo da bozketan.

Lurraldearen Batzordearen irizpena kontuan hartuta eta gaia bozkatu ondoren, alkate jaunaren eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV, Agirre (EAJ-PNV), Pérez (EAJ-PNV), Nieves (PSE-EE) eta García (PSE-EE) zinegotzien aldeko botoekin (9 aldeko boto), eta Oruesagasti, Elgarresta, Nestar eta Diáz de Espada EH Bilduko zinegotzien abstentziorekin honako erabaki hau hartu da:

**<u>6.- Estudio Detalle "Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U.11) del PGOU de Urretxu": aprobación definitiva.</u>**

El sr. Zubillaga, presidente de la Comisión de Territorio, expone que el presente Estudio de Detalle tiene como objeto concretar las rasantes y alineaciones y reordenar los volúmenes de las edificaciones previstas.

Este Estudio de Detalle, ha sido redactado por los arquitectos Fernando Garate y Unai Aldama y fue aprobado inicialmente por Resolución de Alcaldía de 10 de junio de 2022, sometido a información pública, por plazo de 20 días mediante anuncios publicados el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 115 de 17 de junio de 2022, en los periódicos Berria de fecha 14-06-2022 y El Diario Vasco de 17-06-2022.

La sra. Oruesagasti expone que su grupo político, EH Bildu, por coherencia con anteriores votaciones relativas al mismo ámbito de actuación, se abstendrá en la votación.

Considerando el dictamen de la Comisión de Territorio y sometido el asunto a votación, con los votos a favor del sr. alcalde y de los y las concejalas sr@s Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Agirre (EAJ-PNV), Pérez (EAJ-PNV), Nieves (PSE-EE), y García (PSE-EE), (9 votos a favor), y las abstenciones los/las ediles de EH Bildu sr@s Oruesagasti, Elgarresta, Nestar y Díaz de Espada (4 abstenciones), se acuerda**:**

Urretxuko udala

**Lehenengoa.-** Behin betiko onartzea Fernando Garate eta Unai Aldama arkitektoek idatzitako "Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U.11) del PGOU de Urretxu" Xehetasun Azterlana.

**Primero.-** Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle "Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U.11) del PGOU de Urretxu" redactado por los arquitectos Fernando Garate y Unai Aldama.

**Bigarrena.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkarietan argitaratzea, eta jabeei eta gainerako interesdunei jakinarazpen pertsonala egitea.

**Segundo.-** Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los diarios, con notificación personal a los propietarios y demás interesados

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza-plangintzako erregistrora bidaltzea "Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U.11) del PGOU de Urretxu" Xehetasun Azterlana, bertan jasota gera dadin.

**Tercero.-** Remitir el Estudio de Detalle "Subámbito 11.1 Gainzuri-convento (A.U.11) del PGOU de Urretxu" para su depósito, al registro de planeamiento urbanístico de Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Laugarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea erabaki hauek betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

**Cuarto.-** Facultar al Sr. Alcalde para dictar las disposiciones necesarias en orden a la ejecución de estos acuerdos.

**7.- Kale garbiketa kontratua: luzapenari uko egitea onartzea.**

Lurraldea Batzordeko lehendakaria den Zubillaga jaunak azaldu du kale-garbiketako kontratua Udalbatzak esleitu zuenez, organo horrek hartu behar dituela kontratu horri buruzko erabaki guztiak.

Jarraian, azaldu du Serbitzu Elkartea S.L. eta FCC S.A enpresek osatutako UTE Urretxu Garbiketa merkantilak kontratuaren 2023ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko zen luzapenari uko egin diola (urtebeteko luzapena). Honen argudioak honakoa dira: soldaten igoerak, prezioen berrikuspenak baimendutakoaren gainetik, eta prezioen igoerak, batez ere erregaiarenak, kontratuaren

**7.- Contrato limpieza viaria: aceptación renuncia a la prórroga**.

El sr. Zubillaga, presidente de la Comisión de Territorio, explica que, dado que el contrato de limpieza viaria fue adjudicado por el Ayuntamiento Pleno, órgano competente para ello, todos los acuerdos relativos al mismo deben adoptarse por este órgano.

Seguidamente informa que la UTE Urretxu Garbiketa formada por Serbitzu Elkartea S.L. y FCC S.A., ha presentado su renuncia a la prórroga del contrato (un año) que entraría en vigor el 1 de enero de 2023, basando su petición en que el incremento de los salarios, por encima de lo permitido por la revisión de precios, y el incremento de los precios, en especial del

Urretxuko udala

oreka ekonomikoa ez dute eusten. Argudio hauek aztertu egin dira, eta gobernu taldeak ez du nahi kontratuari lotuta dauden langileek soldata kobratzerakoan arazoak izatea, eta honengatik luzapenari uko egitea onartzea proposatu du.

Antolakuntza Batzordeak luzatutako diktamena kontuan harturik, eta gaia botoetara eramanda, aho batez honakoa erabaki da:

**Lehena.-** UTE Urretxu Garbiketa merkantilak kale garbiketa zerbitzuari dagokion kontratua ez luzatzeko agertutako asmoa onartzea,

**Bigarrena**.- Lizitazio espediente berria hastea.

**Hirugarrena.-** UTE Urretxu Garbiketa merkantilari jakinaraztea zerbitzua egungo baldintzetan ematen jarraituko duela, esleipen berria jakinarazi arte.

Eta beste gairik izan gabe, amaitutzat eman da bilkura, akta honen hasieran agertzen den eguneko arratsaldeko zortziak hogei gutxi direnean, eta horren guztiaren fede ematen dut.

combustible, hacen que no se mantenga el equilibrio económico del contrato. Señala que los argumentos presentados por la adjudicataria están contrastados y que desde el equipo de gobierno no se desea que surjan problemas en el abono de los salarios a las personas trabajadoras adscritas al contrato, por lo que se ha propuesto aceptar la renuncia a la prórroga.

Considerando el dictamen de la Comisión de Organización, y sometido el asunto a votación, por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Aceptar la voluntad de UTE Urretxu Garbiketa de no prorrogar el contrato de limpieza viaria..

**Segundo.-** Iniciar el nuevo expediente de licitación.

**Tercero.-** Comunicar a UTE Urretxu Garbiketa que proceda a seguir prestando el servicio en las condiciones actuales en tanto se le notifique la nueva adjudicación

Y no habiendo más asuntos que tratar, se da por finalizada la presente sesión, siendo las diecinueve horas cuarenta minutos el día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe.